



ARTZINIEGAKO UDALA

AKTA

Saioa: Osoko Bilkuraren ezohikoa

Eguna: 2019ko irailak 19

Ordua: 9:05 – 9:15

Lekua: Udaletxeko Bilkura Gela

Bertaratuak:

Joseba Mirena Vivanco Retes
Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin
Arkaitz San Jose Martinez
Unai Gotxi Kastrexana
Encina Castresana Astarloa
Jose Miguel Vadillo Ribacoba
Miren Izaskun Perez Barragan
Joseba Elejalde Ribacoba

Ez dira agertu: Alazne Lafragua Ureta, ez bertaratzearen arrazoia azaldu duena.

M^a Ascension Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 9:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

Alkatea: Kaixo, egun on. Ez ohiko udalbatzari hasiera emango diogu. Gai zerrenda ekainaren 15ean egindako inbestidura-udalbatzako aktarekin hasten da. Ondoren, udal igerilekuen berriztapenerako diru-laguntza eskaera eta obraren txosten teknikoa jorratuko dugu.

1.- 2019ko ekainaren 15ean egindako saioko akta onartzea.

Alkatea: Ezohiko saio honi hasiera emango diogu. Gai-zerrendako lehendabiziko puntua 2019ko ekainaren 15ean egindako saioko aktaren onarpena da. Inork aktaren gainean oharririk aldatetarik edo edozein kontu izango balu.

Unai Gotxi Kastrexana: Hautagaiak izendatzean, ez dakit aktan horrela ulertzen den, laugarren orrialdean, Joseba hautagai modura izendatzen denean, Arkaitzek dio "HB taldeak mantendu kandidatoa" beraz, berrius dadin.

2019ko ekainaren 15eko akta bozkatu da:

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Arkaitz San Jose Martinez, EH Bildu taldekoak (4); Encina Castresana Astarloa, Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (3) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.



2.- Eusko Jaurlaritzako Landa eta Itsas Garapenerako eta Europako Politiketako Sailari laguntza eskatzea, Artziniegako Igerilekuak egokitu eta hobetzeko, Leader zonaldean barneratzen den landa izaerako udalerrria izateagatik.

Alkateak 2019ko irailaren 16an egin zen Natura eta Hiri Inguruneko, energia, ur, mendi, Ingurumen, lan eta hondakinen kudeaketarako Informazio Batzordearen saioan emandako irizpena irakurri du:

“Ikusirik Artziniegako “La Bárcena” auzoan dauden udal igerilekuak egokitzeko Iñaki Aristondo Iciar arkitekto jaunak idatzitako proiektua, 2018ko uztailaren 16an aurkeztua (1992 sarrera), zeinaren aurrekontua, ordainsariak barne, lauhun eta zortzi mila eta bostehun eta hirurogeita bederatzi euro eta laurogeita bederatzi zentimokoa (408.569,89 €) baita, horrela banakatuta:

<i>EGIKARITZE MATERIALA GUZTIRA.....</i>	<i>275.345,43.-</i>
<i>(% 19) GASTU OROKORRAK ETA INDUSTRIA MOZKINA.....</i>	<i>52.315,64.-</i>
<i>BEZ % 21</i>	<i>68.808,82.-</i>
<i>KONTRATAREN AURREKONTUA GUZTIRA</i>	<i>396.469,89.-</i>
<i>ORDAINSARIAK, IDAZKETA ETA ZUZENDARITZA</i>	<i>12.100,00.-</i>
<i>AURREKONTU OROKORRA GUZTIRA</i>	<i>408.569,89.-</i>

KONTUAN IZANIK aipatu proiektua Uraren Euskal Agentziak (URA) eta Errepide Sailak baimendutako dagoela.

Udalbatzak, 2019ko programan LEADER zonaldearen barnean sartzen diren herrietako azpiegitura, oinarrizko zerbitzu eta berriztapenerako laguntzen deialdiaren aurrean, hartu du **ERABAKIA:**

Lehena.- Landa eta Itsas Garapen eta Europako Politiketako Sailari eskatzea Artziniegako Igerilekuak egokitu eta hobetzeko obrak, Iñaki Aristondo Iciar arkitekto jaunak idatzitako proiektuan, 2018ko uztailaren 16an aurkeztua (1992 sarrera), egikaritzeko laguntza, zeinaren aurrekontua, ordainsariak barne, lauhun eta zortzi mila eta bostehun eta hirurogeita bederatzi euro eta laurogeita bederatzi zentimokoa baita(408.569,89 €), EAEko landa zonaldeak bultzatu eta garatzeko programaren barnean.

Bigarrena.- Jakinaraztea 2019ko udal aurrekontuan aipatu obra egikaritzeko aurrekontu kontsignazio bat dagoela, Udal Kontu-hartzailearen ziurtapenaren arabera.

Hirugarrena.- Eskaera Landa eta Itsas Garapen eta Europako Politiketako Sailera igortzea irailaren 23a baino lehen”.

Alkatea: hau Europako funts horiei igerilekuak egokitzeko obra egiteko laguntza eskatzeko bete behar dugun izapide bat da. Eskatzen diguten izapide bat da, eta eskaera udalbatzak onartu behar du. Ez dakit ezer esan nahi duzen.

Joseba Elejalde Ribacoba: nik, batzordean aipatu nuen moduan, ni denborak kezkatzen nau gehienbat. Ondo dakigun moduan, azkenaldian Arabako Foru Aldundiari hainbat luzapen eskatu behar izan dizkiogu beste proiektu batzuetarako eta gustatuko litzaidake Alkatetzeta honetatik ardura osoa izatea behin Leader programari dagokion diru-laguntza onartu diren ala ez jakin



ostean, epeak egikaritzeko, eta datorren urtean igerilekuak irekita egon daitezzen jadanik modu arruntan udaletxean dugun legeak berak ezartzen duen epe eta denboran. Araudiaren arabera, ekainaren 15ean izango litzateke. Eta finantzazioaren gaiari dagokionez, jakina hemen Ascenen ipintzen du, bigarren puntuari, aurrekontuan badela aurrekontuaren kontsignazio bat, pentsatzen dut 408.000 euro horietarako, gainerako 160.000 euroak kenduz aurrekontuaren kontsignazioa geratuko litzateke zehatz-mehatz, Leader programak hemen ahal diguna alde batera utzita.

Ascension Hormazabal Meabe: obra honetarako Foru Planera ere eskatu dugu diru-laguntza eta esleitu ahal izateko Aldundiak proiektua onartzeko zain gaude, baina kontsignazioa izan beharrean gaude, badago dirua.

Joseba Elejalde Ribacoba: badago dirua Leader programak % 20, 30, 40 edo 50 ematearen gorabehera, aurrekontuaren kontsignazioa horretaz aparte...

Ascension Hormazabal Meabe: diru-laguntza onartzen baldin badigute, gainerakoa soberakinera joango da.

Joseba Elejalde Ribacoba: 248.000 euroak, noski, aterako lirateke...

Alkatea: 2019ko hasierako aurrekontuan, aurrekontuaren onartutakoan, badago kontsignazio bat baina uste dut sinbolikoa dela, eta gainerakoa teoriarik soberakinetik hartu beharko litzateke. Baina tira, ni bat nator zuk diozunarekin eta gainera onartzen dut kezka dagoela epeen kontuarekin, dauden epeetan daudelako, izan ere, gure helburua da, orain Aldundian dago hura baita dokumentazioa behatzen ari dena zer falta den ikusi eta ondoren oniritzia emateko, modu horretan, lizitazioa atera dezakegu eta...

Ascension Hormazabal Meabe: Foru Planaren Sailak joan den astean arkitektoari planoren bat eskatu zion eta...

Joseba Elejalde Ribacoba: bai, batzordean horri buruz aritu ginen..

Joseba Elejalde Ribacoba: nik ulertzen dut ordea, badirela Udal honen errua ez diren zenbait muga, azken batean badira beste zenbait administrazio, baina azken batean, ikusten aritu baikara, eta zuek Gobernuko Talde modura une honetan konturatu zarete izapide honek guztiak berekin zer dakarren, gainera orain oztopo eta traba gehiago jartzen ari zaizkio, eta gero eta paper gehiago bete behar dira, ez idatzia, baizik eta... azken batean hori da arazoa, denborak aurrera egitea, eta datorren urteko ekainera iritsi eta oraindik igerilekuak egikaritu gabe izatea.

Alkatea: tira, eta esaten duzunaren zain gaude oraindik, obra hau amaitzeko luzapenaren eskaera egina dugu. Bai hau eta bai Foru Planeko beste biak, izan ere, ezinezkoa da obrak abenduaren 31 baino lehen amaitzea, aurreikusita zegoen moduan. Orduan Aldundiak oraindik erantzuna eman behar digu. Nik gutun bat igorri nion lurralde orekako Diputatuari hertsatuki eskatuz bederen aurrera dezan zein planteamendu duen sail modura luzapen hauek onartzeari dagokionez, izan ere, badakigu ez garelako udal bakarra, inondik ere ez, obrak aurreikusitako epeen barruan amaituko ez dituen eta luzapena eskatzen ari dena. Azken batean horretan gaude, helburua jakina obrarekin urtea amaitu aurretik hastea da, tartea izan dezagun, igerilekuak erabilgarri egon daitezzen datorren urteko udari begira. Egikaritze-epea 5 hilabetekoa da, beraz hasiera batean 5 hilabete horiekin ariko gara, baina batez ere obreak urtea amaitu baino lehen hasten ahaleginduko gara. Ikusiko dugu orain hilabete hauetan, hemendik urte amaiera bitartean, zenbateko azkartasunez ematen digun Aldundiak oniritzia ondoren izapideak egin eta obra esleitzeko. Ez dakit beste ezer dagoen gai horrekin lotuta.

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Arkaitz San Jose Martinez, EH Bildu taldekoak (4); Encina Castresana Astarloa, Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (3) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.



3.- Igerilekuan egokitzeko proiektuari buruzko Teknikari aholkulariaren Txostena onartzea.

Alkateak 2019ko irailaren 16an egin zen Natura eta Hiri Inguruneko, energia, ur, mendi, Ingurumen, lan eta hondakinen kudeaketarako Informazio Batzordeak emandako irizpena irakurri du:

“Ikusirik Artziniegako “La Bárcena” auzoan dauden udal igerilekuak egokitzeko Iñaki Aristondo Iciar arkitekto jaunak idatzitako proiektua, 2018ko uztailaren 16an aurkeztua (1992 sarrera), eta 2019ko abuztuaren 21ean onetsi eta entregatua (2506 sarrera), zeinaren aurrekontua hirurehun eta laurogeita hamasei mila eta laurehun eta hirurogeita bederatzitaurogeita euro eta laurogeita bederatzitaurogeita zentimokoa (396.469,89 €) baita, Tokiko Gobernu Batzordeak 2018ko irailaren 12an emandako erabakiz onartua.

KONTUAN IZANIK Proiektua Tokiko Gobernu Batzordeak 2018ko irailaren 12an egindako ezohiko saioan onartu zela eta gainerako administrazio-dokumentazioarekin batera sail horretara igorri zela 2018ko urriaren 26an.

KONTUAN IZANIK Artziniegako Udaleko hirigintza arloko Aholkulari teknikoa aldeko txostenak igorri dituela 2019ko uztailaren 31ko eta 2019ko irailaren 16ko datarekin.

Azaldutakoan oinarrituta, eta Obra eta Zerbitzuetako Foru Plana egikaritzeko araudiarekin bat etorrituz, Udalbatzak ERABAKI hau hartu du:

Lehena.- Hirigintza arloko Aholkularitzak Udal Igerilekuak Egokitzeko Proiektuari buruz, 2019ko abuztuaren 31n eta irailaren 16an igorritako txostenak onartzea, hark Udal Hirigintza Plangintza nahiz irisgarritasun eta mugikortasun arloan indarrean dagoen araudia betetzen duela eta.

Bigarrena.- Onartutako proiektua Foru Planeko Sailera igortzea.”

Alkatea: beste izapide-onarpen bat, Foru Planak eskatzen diguna. Zer esateko?

Aldeko botoak:

Joseba Mirena Vivanco Retes, Zuriñe Frutos Gutierrez-Barquin, Unai Gotxi Kastrexana eta Arkaitz San Jose Martinez, EH Bildu taldekoak (4); Encina Castresana Astarloa, Jose Miguel Vadillo Ribacoba eta Miren Izaskun Perez Barragan, EAJ-PNV (3) alderdikoak; Joseba Elejalde Ribacoba P.P. taldekoa (1)

Kontran:

Batere ez.

Abstentzioa:

Batere ez.

Onartuta geratu da.

Eta jorrazteko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren bederatzia eta hamabost minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.